

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ZALDIZ IBILTZEA	Iraupena	80
		Baldintzatua	
Kodea	UF0835		
Lanbide-arloa	Kirol-jarduera fisikoak		
Lanbide-eremua	Aisialdiko gorputz- eta kirol-ekintzak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ingurune naturaleko zaldi-ibiltzeetako gida	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Zaldiz ibiltzeko oinarrizko teknikak (zeharkakoa)	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Zaldiz ibiltzeko instalazioak eta ekipoak.	Iraupena	40
	Zaldiz ibiltzeko kondizio fisikoa eta zaldiaren gaitasuna.		60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator LB3 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Zaldiz trebetasunez ibiltzeko erabiltzen diren teknikak deskribatzea.

- EI1.1 Zaldi baten oinezko, trostako eta lauhazkako mugimendu naturalen sekuentzia desberdintzea, eta bakoitzaren mekanika azaltzea.
- EI1.2 Zaldiaren mugimendu naturalaren funtsezko kontzeptuak aipatzea, eta haietako bakoitzaren esanahia definitzea.
- EI1.3 Zaldizkoarekin dabilen zaldi baten ibilera artifizial eta mugimendu biziari nagusiak identifikatzea eta desberdintzea.
- EI1.4 Zaldiaren gainera igotzeko teknikak deskribatzea, eta kasu bakoitzean gomendagarriena zein den adieraztea.
- EI1.5 Zaldiz hiru ibileretan ibiltzean zaldizkoak zelan izan behar duen jarrera eta eskuak eta hankak jartzeko modua definitzea.
- EI1.6 Zaldizkoak zaldiz ibiltzeko dituen laguntzak eta zaldiz dabilen bitartean haien aplikatzeko moduak bereiztea.
- EI1.7 Zaldiz ibiltzean hark izan litzakeen desobedientziak eta/edo bizioak kontrolatzeko erabiltzen diren metodoak aipatzea.
- EI1.8 Estriburik gabe zaldiz ibiltzean eta jauzi txikiak (0,80 m-ra artekoak) egitean erabili beharreko teknikak azaltzea.
- EI1.9 Zalditik jaisteko teknikak deskribatzea, eta kasu bakoitzean gomendagarriena zein den adieraztea.
- EI1.10 Laneko arriskuak prebenitzeko eta animalien ongizaterako arauak —zaldiz ibiltzeari lotuak— adieraztea.

A2: Animalia gainera igotzea, eta orekaz eta eraginkortasunez ibiltzea ibilera batean eta bestean, kasu bakoitzean teknika espezifikoak aplikatuz.

- EI2.1 Zaldia kabestrutik helduta trebetasunez kontrolatzea, eta geldirik egotea lortzea, haren gainera segurtasunez igotzeko.
- EI2.2 Zaldiaren gainera trebetasunez eta eraginkortasunez igotzea, arrisku-egoerak saihestuz.
- EI2.3 Hiru ibileretan ibiltzea, zelan posizio egokia izanez eta laguntzak erraz aplikatuz.
- EI2.4 Ibilera batetik besterako trantsizioak egitea (oinetz, trostan eta lauhazka), leuntasunez eta zaldiaren erantzun eta mugimendu naturalak lortzen saiatuz.
- EI2.5 Zaldiz ibiltzean erritmo-, norabide- eta noranzko-aldaketak egitea, zaldiari behar beste denborarekin aginduz mugimenduak, eta behar adina zabaltasunekin eginez.
- EI2.6 Bidean topatzen diren hesiak, ateak, burdin langak, zangak eta antzeko zailtasunak gainditzea, zaldiaren gainean nahiz zalditik jaitsi eta hari kabestrutik helduta, hala badagokio.
- EI2.7 Estriburik gabe zaldiz ibiltzea, segurtasun-baldintzak betez, eta erakustea teknika behar beste menderatzen dela.
- EI2.8 Oztopo txikiak (0,80 m-ra artekoak) saltatzea, pistan eta/edo landan, segurtasun-baldintzetan, teknika behar beste menderatzen dela erakutsiz.
- EI2.9 Zaldiz ibiltzean norabidea, noranzkoa eta erritmoa aldatzea, zehaztasunez eta erritmo egokiarekin.
- EI2.10 Zaldiaren desobedientziei eta/edo bizioei erantzutea, azkar eta erabakitasunez jardunez.
- EI2.11 Zaldia geldiaraztea, dagozkion laguntzak erabiliz, nahi den tokian eta unean, inguruabarrak edonolakoak direla ere.
- EI2.12 Zalditik trebetasunez eta eraginkortasunez jaistea, arrisku-egoerak saihestuz.
- EI2.13 Zaldiz ibiltzeko lanak egitea, kontuan hartuz laneko arriskuak prebenitzeko eta animalien ongizaterako arauak.

Edukiak

1. Zaldiaren lokomozioa eta motrizitatea

- Zaldiaren posizioaren azterketa, hura geldirik dagoela.
- Zaldiaren ibilera naturalak:
 - Zaldiak oinez egiten duen mugimenduaren azterketa.
 - Zaldiak trostan egiten duen mugimenduaren azterketa.

- **Zaldiak lauhazka egiten duen mugimenduaren azterketa.**
- Zaldiaren mugimendu naturalaren funtsezko kontzeptuak:
 - Zabaltasuna.
 - Kadentzia.
 - Maiztasuna.
 - Esekidura.
 - Elebazioa.
 - Oreka.
 - Koordinazioa.
- Zaldizkoarekin dabilela zaldiak egiten dituen ibilera artifizialak eta mugimendu biziak.

2. Zaldiz ibiltzeko tekniken aplikazioa

- Zaldiaren gainera igotzeko, animalari kabestrutik helduta hura kontrolatzeko metodoak.
- Zaldiaren gainera igotzeko teknikak.
- Zalditik jaisteko teknikak.
- Zaldiz ibiltzean zaldizkoak oreka eta posizio egokia lortzeko teknikak.
- Zaldizkoak laguntzak aplikatzeko teknikak:
 - Naturalak.
 - Artifizialak.
- Zaldiz ibiltzeko teknikak, hauek egiteko:
 - Pasabidera irtetea.
 - Gelditzea eta geldirik egotea.
 - Abiaduraren erritmo-aldaketak.
 - Abiaduraren norabide- eta noranzko-aldaketak.
 - Ibileren arteko trantsizioak.
 - Oztopo txikiak (0,80 m-ra artekoak) saltatzea.
 - Ateak, burdin langak, zangak eta beste barrera artifizial batzuk gainditzea.
- Zaldizkoarekin dabilen zaldiaren desobedientziak eta bizioak zuzentzeko teknikak.

3. Zaldiz ibiltzeko jardueren lotutako araudiaren aplikazioa

- Legeak:
 - Estatukoak, autonomia-erkidegokoak eta tokikoak.
- Hauei buruzko araudiak erregulatzen dituen jarduerak:
 - Lan-arriskuen prebentzioa.
 - Ganaduaren ongizatea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gaindituak izan behar ditu UF0833 Zaldiz ibiltzeko instalazioak eta ekipoak UF0834 Zaldiz ibiltzeko kondizio fisikoa eta zaldiaren gaitasuna

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ingurune naturaleko zaldi-ibilbideetako gida.